

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua aurrera eramateko, produkzio bat beharrezkoa da. Horretarako, modu egokian dagoen materiala erabiliko dugu, zehazki; arrautzen kaxak, kremaierak eta apaintzeko hainbat pintura. Material hau lortzeko, gure tailerrean sekzio bat egongo da, nahi duenak material hauek hor uzteko. Modu horretan, haiek birziklatzeko aukera izango dute eta guk gure produktua egiteko materiala lortuko dugu. Pertsona hauek etekin bat jasoko dute gure partez, materiala uzten duten bakoitzean kupoi bat jasoko dute, eta bost kupoi jasotzerakoan estutxe bat lortuko dute. Gainera, enpresa batzuekin ere kontaktuan egongo gara, ikastetxe baten jantokiarekin eta zenbait jatetxerekin, adibidez. Hortaz gain, estutxea apaintzeko materiala guk erosiko dugu. Ekoizpenari dagokionez, guk egingo dugu produktua gure tailerrean.

Estutxea saltzeko, eskolako materiala saltzen duten dendeekin harremanetan jarriko gara. Denda hauek gure produktua saltzen duten heinean, gurekin adostutako diru kopurua emango digute. Bestalde, hainbat sare sozialekin (instagram eta tiktok) lotura izango dugu, horrela iragarkien bidez gure produktua erakutsiko dugu. Iragarkia egiteko, komunikazio agentzia bat kontratatuko dugu, modu horretan, iragarki erakargarri bat izango dugu. Komunikazio agentzia hau, soilk ingurunea zaintzen duten enpresekin lan egiten du.



Garraioari dagokionez, gure produktua garraiatuko duen pertsona bat kontratatuko dugu. Pertsona hau, astean bitan produktua denda desberdinetara banatzeaz arduratuko da. Denda hauek gure inguruan daudenez, langilea bizikletan mugituko da produktua garraiatzeko, modu honetan, ez dugu ingurunea kutsatuko.

